

2013ko urrian Eskoriatzako udalean egingo den osoko bilkuran aurkezteko mozioa:

Gorka Azpitarte euskal preso eskoriatzarra, 2009 urtean atxilotua izan zenetik espetxeratua dagoena, irailaren 2an epaitua izan zen Parisen: 5 urteko espetxe zigorra ezarri zioten eta estatu frantziarrean sartzeko debekua.

Gorka Azpitarte gaur egun Fleury Merogis-en (frantziar estatua) espetxeratuta dago. Espetxe horretan euskal presoak eskubide urraketak jasaten ari dira bertako zuzendariaren eskutik: DPS (modu berezian seinalatua) moduan ezarrita dauden euskal presoak ziegaz behin eta berriro aldatzera zigortu izan dituzte, esaterako. Presoek beraien eskubideak aldarrikatzeko eskuetan dutena egin ostean urriaren 1etik 11ra gose greba egin behar izan zuten zuzendariak beraien eskubide eskariari erantzun ziezaion. Gogora ekarri behar da gose greba muturreko borroka era dela, gogorra edozein kasutan, are gehiago espetxeak ezartzen duen zigor egoeran.

Azaldutako guzti hau kontuan hartuta udaleko osoko bilkuran hemen agiri diren puntuak onartzeko eskatzen dugu mozio honen bidez.

Eskoriatzako udalbatzak mozio hau onartzen du:

1. 2011ko urriaren 17an egin zen Aieteko adierazpenarekin bat egiten dugu bere bost puntuetan, Euskal Herriak bizi duen gatazka egoera konpontzeko bide egokitzat hartuz.
2. Frantziako eta Espainiako gobernuei Aieteko adierazpenaren 2. puntua bete, eta Euskal Herrian bizi dugun gatazka konpontzeko pausuak ematen hasteko eskatzen diegu. Ildo horretan, epaiketa honek eta espetxean gertatzen diren eskubide urraketek gatazkaren konponbidera hurreratu beharrean gatazkaren luzapena adierazten duela salatu nahi dugu.
3. Aieteko adierazpenaren 2. puntua betetzeko pausuen artean Gorka Azpitarte, Marixol Iparragirre, Iñaki Lizundia, Mikel Albisu eta gainontzeko euskal presoak Euskal Herriratzeko eskaria egiten dugu, dispertsio politika behingoz amaituz.
4. Gorka Azpitarte herkideari eta bere senideei gure elkartasuna adierazten diegu eta Gorkaren eskubideak errespetatuak izan daitezela eskatzen dugu.
5. Gorka Azpitarteri osoko bilkura honek onartutakoaren berri emango dio udalak eskutitz bidez, baita herritarrei ere dagokion bidea erabiliz.

ESKORIATZAKO UDALA	
2013 URR 17	
SARRERA	IRTEERA
1856	—

Eskoriatzan, 2013ko urriaren 16an.
Eskoriatzako Presoen Aldeko Taldea